



PROKOKOLO OROKORRA

2021/22 IKASTRUTEAN IKASTEHEETAN COVID-19aren

AURREKO PREBENTZIO NEURRIAK

I. ERANSKINA

**BARNETEGIETAN KORONABIRUSAREN (SARS-CoV-2) AURREAN ZER-NOLA JARDUTEKO
PROKOKOLO OROKORRA.**

(2021-08-25)

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. XEDEA

3. ERANTZUKIZUNAK

4. JARDUERETAN GARATZEKO JARRAIBIDEAK

4.1 Prebentzio-neurri orokorrak

4.2 Espazioak

4.2.1 Jangela

4.2.2 Logelak

4.2.3 Komunak

4.2.4 Jokogela

4.2.5 Isolamendu-gela

5. BESTE GOGOETA BATZUK



1. SARRERA

Egungo egoera epidemiologikoaren bilakaera ikusita, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak NOLEGA programa barruan dauden Euskal Girotze Barnetegiak berreskuratzeko asmo irmoa du 2021-2022 ikasturterako.

Barnetegi horien helburu nagusia etxeko eta kaleko erdal giroan bizi diren haurrei euskal giro aberats bat ezagutzeko eta bertan euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea izanda, ahalik eta lasterren berriro martxan jartzeko apostua egin nahi du Sailak, beti ere segurtasun osoa bermatzen.

Horretarako, programan parte hartzen duten aterpetxeen arduradunei neurri operativo batzuk eskaini nahi dizkiegu Kontingentzia Plan bat sortzen laguntzeko, ahal den neurrian arriskuak minimizatzeko.

2. XEDEA

Aterpetxeetan COVID-19ren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko beharrezko prebentzio-neurriak ezartzea, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatuz, bai ikasleena, bai irakasleena edo aterpetxeko langileena.

Aterpetxeetako kontingentzia-plana egiteko dokumentu lagungarria izatea. Nola nahi ere, Protokoloak izaera dinamikoa du, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro.

3. ERANTZUKIZUNAK

OMEk ezarritako biztanleriaren konpromesua beharra hezkuntza eremura ekarriz gero, hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukidetasuna eskatzen du kutsatze-arriskuak minimizatzeko eta eskolen egunerokotasuna berreskuratu ahal izateko bizi izan dugun osasun-krisiaren ostean.

4. JARDUERETAN GARATZEKO JARRAIBIDEAK

Oinarrizko Erreferentzietatik abiatuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu beharko dira, osasun arloko agintariek adierazitako irizpideetan oinarrituta beti. Horien eskutik, jarduera antolatzekeo neurriak ere garatu eta ezarri beharko dira.

Aterpetxe bakoitzean bertoko irakasle bat COVID-19arekin zerikusia duten alderdietarako erreferente moduan izendatuko da. Pertsona horrek ikastetxeetako arduradunaren partetik taldekideei buruzko informazioa jasoko du eta kontaktuak ikertzeko beharrezkoa izatekotan Osasun Saileko COVID19ko Zaintza eta Jarraipen Sareak eskatzen dion informazioa emango du.



4.1 Prebentzio-neurri orokorrak:

Zenbait ekintzek, oro har, COVID-19ren transmisio-arriskua nabarmen murrizten lagun dezakete.

Ekintza horiek, oro har, sei ildotan bil daitezke:

- 1. Pertsonen arteko distantzia.** Burbuila berekoak ez diren ikasleen artean 1,5 metroko distantzia mantenduko da, gutxienez. Helduen artean, 1,5 metroko distantzia mantendu beharra dago.
- 2. Maskarak erabiltzea eta arnas higiena.** 6 urtetik gorako pertsonak maskara erabili beharko dute, araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik. Maskara uneoro erabili behar da, distantzia edozein izanda ere. Maskara bakarrik kendu daiteke edan edo jateko kasuetan izan ezik (ikus aurrerago, JANTOKIAK atala).
- 3. Eskuen higiena.** Ahal dela, urarekin eta xaboiarekin egin behar da, edo, posible ez bada soluzio hidroalkoholikoarekin.
- 4. Garbiketa eta desinfekzioa.** Pertsonekin kontaktuan dauden azalaren garbiketa eta desinfekzioa espazioen ezaugarrien eta erabileraren arabera izan behar da. Orokorrean, bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez.
- 5. Aireztapena.** Asmo nagusia barneko airea, kutsatuta egon daitekeena, kanpoko airearekin ordezkatzeko izan behar da. Ezinbestekoa izango da aireztapen gurutzatua eta nahikoa bermatzea kanpoko airearekin, ahal dela modu iraunkorrean. Aireztapena behartua bada, kanpotik ahalik eta aire gehien sartzeko bide eman behar da eta aireak birzirkula dezan saihestu.
- 6. Kontaktuen kopurua murriztea.** Ahal den neurrian, jarduerak talde txikietan egiten saiatu behar, gelako taldeak egonkor mantenduz eta haien arteko urruntze fisikoari eutsiz.

Aterpetxeetan higiena-neurriak betetzea erraztu behar da osasunerako hezkuntza-estrategien bidez eta haurrentzako kartel eta seinaleetika atseginen bidez, neurriak betetzea errazteko.

Jardueren programazioan higiena indibidualako erritualak eta prebentzio-neurriak txertatu behar dira.

4.2 Espazioak

4.2.1 Jantokiak

Jangelako sarrerak eta irteerak modu ordenatuan egingo dira maskara jantzita eta gutxienezko segurtasun-distantzia mantentzen saiatuz.

Soluzio edo gela hidroalkoholikoak egon behar dira eskura, bai sarreran eta bai irteeran, eta erabiltzeko moduan egon behar dira beti. Hala ere, eskuak urarekin eta xaboiarekin behar bezala garbitzea sustatuko da, otorduak egin aurretik eta ondoren.

Ikasleek banaka erabiltzeko tresnak izan behar dituzte (erretilua, platerak, edalontzia, mahai-tresnak).



Mahaietatik kendu egingo dira erabilera partekatuko ontziak eta banagailuak, hala nola ogiak, olibondoak, ezpainzapiak...eta abar. Erabili eta botatzeko monodosiak edo beste formatu batzuetako zerbitzua lehenetsiz, ikasleek hala eskatuta. Ur-pitxerrak izanez gero, horretarako izendatutako pertsonak erabiliko dituzte.

Jantokia erabiltzean, bizikidetzatalde egonkorak mantentzea errespetatuko da, talde horiek ez nahasteko eta haien arteko segurtasun-distantziari eusteko. Gainera, kutsatzeko aukera murrizteko eta kontaktuen bilaketa errazteko, ikasleek mahaiko leku berean eseri beharko dute egunero.

Janariaren autozerbitzua saihestuko da.

Maiz aireztatuko dira jantokiarekin lotutako instalazioak. Ezinbestekoa izango da aireztapen gurutzatua eta nahikoa bermatzea kanpoko airearekin, ahal dela modu iraunkorrean.

Kontingentzia- planek aurreikusita eduki behar dute sukaldeko eta-edo jantokiko langileen artean COVID-19an positibo ematearen aukera, eta haren ondorioz gainerako langileek kontaktu estua izan eta berrogeialdia egin behar izatea.

4.2.2 Logelak

Geletara sartzeko eremuan soluzio hidroalkoholikoa eduki behar da.

Oheen artean araudiak ezartzen duen gutxieneko segurtasun-distantzia gordeko da. Oheen artean 1,5 metroko gutxienezko distantziaren beharra ezarri behar da.

Gela partekatuak bizikidetzatalde egonkor bereko kideek erabiltzen dituztenetan ere, distantzia hori izatea gomendatzen da. Horretaz gain, oheetan, ikasleak etzatzeko noranzkoa tartekatzea komeni da, hau da burua eta oinak noranzko desberdinak.

Geletan sartzen diren ikasle-kopurua araudiak dioena izango da, ahal dela, bizikidetzatalde egonkor bereko kideak baino ez dira sartuko logeletan.

Ikasle bakoitzak etxetik eramaten duen lozakua erabiliko du, eta aterpetxean poltsaratutako beheko izara bat emango zaie koltxoia estaltzeko, garbi dagoela bermatuz eta kutsadura saihestuz. Halaber, ikasleei eska dakieke etxetik beraien izara ekartzeko. Ikasleek beren oheak egingo dituzte, ahal den kasuetan.

Logeletatik beharrezkoak ez diren objektuak eta garbitzeko zailak diren itemak kenduko dira.

Ezinbestekoa izango da aireztapen gurutzatua eta nahikoa bermatzea kanpoko airearekin, ahal dela modu iraunkorrean. Gaua igartzeko, ezin izango da erabili aireztapen natural gurutzatua ahalbidetzen ez duen espaziorik. Bestalde, ikasleek beraien lozakuak ere aireztatzeko ohiturak hartuko dituzte.

4.2.3 Komunak

Kontingentzia planean komunak erabiltzeko jarraibideak adierazi behar dira.



Ikasleek espazioa partekatzen badute, beste neurriaz gain, zorrotz bete beharko dituzte urruntze-neurriak eta musukoaren erabilera adin guztietan. Komunak erabiltzeko txandak antolatuko dira, ikasle asko ez pilatzeko aldi berean.

Komunetan gel-banagailuak eta lehortze-papera izango dituzte.

Dutxak erabiltzeko oinetako egokiak erabili beharko dira.

Instalazio horiek maizago garbitu eta desinfektatzeko programa mantenduko da.

Egunean hiru garbiketa bermatzea, komunak desinfektatzea eta paperontziak hustea barne.

Aireztapen gurutzatua eta nahikoa bermatzea kanpoko airearekin, ahal dela modu iraunkorrean ezinbestekoa izango da.

Kartelen bidez adieraziko da okupazioa eta eskuak erabili aurretik eta ondoren garbitzeko betebeharra.

Hornidura eskura izatea:

- Xaboi likidoa, gel-banagailua edo soluzio hidroalkoholiko
- Eskuak lehortzeko papera
- Poltsadun paperontzia (ahal dela, eskuekin ukitu behar ez dena)

4.2.4 Jokogela

Eguraldiak aukera ematen badu, aire zabaleko espazioak erabiliko dira kirola, ekintzak eta jolasak egiteko; kanpoan egin ezin badira, jarduera barrura eramango da leihoak eta ateak irekiz, maskaren erabilera egokia bermatzen eta distantzia maximizatzen. Aireztapen naturala lehenetsiko da egunean behin baino gehiagotan edo etengabe. Aireztapen gurutzatua izan dadin saiatu behar da.

Argibide gehiagorako, kontsultatu [SARS CoV2-ren aerosolen bidezko transmisioa murrizteko gomendioak \(2021/06/08\)](#)

Beharrezkoak ez diren jostailuak edo objektuak eta garbitzeko zailak direnak kenduko dira.

Ahal den neurrian, jardueran zehar material partekatuak erabiltzea saihestu beharko da. Hala ere persona guztiak talde-egonkor batekoak badira, neurri hauek malguagoak izan ahal dira.

Kontakturako jolasak saihestuko dira eta gomendatzen da urruntze- eta higiene-neurriak betetzea.

Bizikidetzatalde egonkor bat baino gehiago dagoenean, biziketza-egongorreko taldeak ez dira elkartuko besteekin; jolaserakoaldiak ahalik eta ikasle-kopuru txikienak aldi berean batzeko moduan antolatuko dira, pilaketarik egon ez dadin. Horretarako, txandak areagotuko dira.

Arau orokor gisa, beharrezkoa da xaboiaren, soluzio hidroalkoholikoaren eta erabili eta botatzeko zapien hornidura egokia eskura izatea.



4.2.5 Isolamendu-gela

Aterpetxe bakoitzean isolamendu-gela bat prestatu behar dute eta ikasleren batek gaitzaren sintomak antzemanaz gero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...) hara eramango zaio, maskara kirurjikoa jarrita, besteekiko harremanak saihesteko eta ikastetxearen arduradunak, dagokion erabakia hartu arte.

Gela honek higie eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da.

Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta FFP2 maskara.

5.BESTE GOGOETA BATZUK

Aterpetxe bakoitzak bere kasuistika aintzat hartuz, aipatutako neurriak bere errealitatera egokitu beharko ditu, betiere kontuan hartuta ikastetxe bateko edo batzuetako taldeak (aterpetxe handiak) ezin direla nahastu.

Gomendatutako neurriak ahalbidetu ahal izateko, aterpetxeko espazioak berrantola daitezke.

Urruntze- eta higie-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldi eta ekintzarik ez egitea gomendatzen da.

Dena den, dokumentu honetan jasotzen dena erkatu beharko da uneoro, Hezkuntza Sailak, Osasun Sailarekin batera hartzen dituen neurriekin. Dokumentu hau Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorraren osagarria da.

Ikastetxeetan erreferentziazko irakasleak identifikatuko dira eta joan baino lehen eta bueltatu ostean hurrengo zereginetaz arduratu behar dira:

- Haur edo gazteen familiekin edo arduradunekin koordinazioa eta komunikazioa mantentzen. Joan aurretik, familiei jakinaraziko zaie COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna...) edo COVID-19a duten pertsonekin kontaktuan egon diren ikasleak, ez dituztela barnetegira bidali behar. Horren berri, dagokionari jakinarazi beharko zaio.

- Prebentzio-neurriak gogorarazten.
- Jarduera garatzeko maskaren mota eta kopurua ziurtatzen.
- Osasun-agintariek komunikatzeko bidea bermatzea, jarduera egin eta 15 egun igaro arte.
- Parte hartzeko baldintzak, informatzeko betebeharra eta baimen informatua onartzeko agiriak batu (gurasoek edo legezko tutoreek sinatu beharrekoa).

**Erabilitako dokumentazioa:**

- 23/2021 Dekretua, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio- neurriei buruzkoa.
- “Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetan koronabirusaren (Sars-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtekoa”.
- Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko (2020-2021 ikasturtea).
- COVID-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan (2020ko urriaren 30a)
- Osasun publikoko jarraibideak, COVID-19aren transmisioa prebenitzera bideratutako protokolo eta plan espezifikoak egiteko (2021eko maiatzaren 14a)
- Aerosolengatik SARS-CoV-2ren transmisioa murrizteko eta aireztapena kontrolatzeko gomendioak (2021eko ekainaren 8a)